

"BERBA EGITERIK EZ EBENEN BERBEA"



MEZEA

On Klaudio Gallastegi'ren irudiaren azpian irakurten dogu idazpuru ori. Orain Jainkoaren zorionean dagon abade ona, arimen artzain arduratsua. Bere eleiztarrek egin deutsoe oroi-tarri ori. Urrillaren 6'an, On Klaudio'ren omenez San Anton Eleiza ederrean, eleizkizun andia egin genduan.

Bere illetan, orain urtebete egon nintzan lez, Meza erabatekoa esaten. Orduan Gotzain Larrea'tar Luis Mari izan zan lez oraingoan Uriarte'tar Juan Mari Gotzain Laguntzaille izan dira buru. Beragaz amar amabiren bat Mezakide gintzazan. Zergaitik —esango deustazue— ain gitxi jakiñez bere illeta-eleizkizunean batu giñeala berrogeiren bat Eukaristia batera ospatzeko? Domekea zalata abadeak euren berarizko eginbeartetan ebiltzazan.

Meza, jakiña, dana euskeraz, igande guztietan izaten dan lez. San Anton'go abesbatzak andra-gizon bietariko abotzaz eratuak, Meza-sarrera gozatuz abestu eban.

Gotzain Uriarte jaunak egin eban zazpi-amar minutuan Ebanjelioaren atzalpena. On Klaudio'ri buruz berbalditxu orren azkenean esan eban zerbait, eta erderaz be itz batzuk egin. Atzeanengoan eta ez neutson entzuten ondo.

* * *

OTOITZ ETA KANTU

Eukaristi egillekide banakak izan arren, eleizea erritarrez bete-beterik egoan.

Gure Aldundegi'ko Buruzagi Pradera arpegi alaietz an agertu jakun, ta Bilbo'ko Alkatea Gorordo Jauna ez ain pozik;

arduraren bat eukiko eban bearbada. Izparringiak barri emoterik be ez. Ez zan etorri Ardanza Lendakaria; Ianpetuta egongo zan, osterantzean, onelango jasoeretan ez dau utsik egiten.

Eleizara Mezea entzuten etorri zirean askok Geure Jauna artu eben, Mezaren Jauna artzeko aldian sei abade ziarduen erdi ta albobietatik zeruko Ogia bananduten. Bitartean, errian ain ezagun dan abesti au "Ogi Zerutik" abestu zan. Gero, eleizako Abesbatzak andra ta gizonez osotuak eresi egoki eder bat erti osoz, ganoraz, abestu eskun lau abotsetara.

* * *

OMENALDIA

Mezea amaiturik, Bilbo'ko Alkateak Gallastegi'tar Klaudio'ren irudia bilbotar zizelkari joxe Borla'fen egintza dana, Bilbo Uriak emoniko begirune bizi, bear egin ta neke ugari eroaten jakin ebanarentzat agertu eban.

Ondoren, Algorta'ko mutil bizkorra dan Asier Bilbao'k, Bilbo Udala'ren eres-taldeko txistulariek euren soñuz lagunduten eutsoela dantzatu eban.

Orain Parroko dan Olabarria'tar Anastasio'k San Antonen bere aurreragokoa izanari buruz auxe esan euskun: "On Klaudio esanaz, dana esanda dago. Euskalerrit'ik zear igaro zan abaderik andiena ta entzutentsuena izan da".

* * *

ZAPALDUEN ALDE

Aurreko egunetan izparingietan idatzi eban berak Olabarria'k On Klaudio'ri buruz idaz-lan bat irudi azpiko burnizaflanean irakurten dan esaerea: "berba egiterik ez ebenen berbea" azalduz:

Franko'ren Jauntzargoak Euskal Erria aurrean erabilen ta emengo norki askori okerkeriak egiten eutsezan.

Oneik ez eben egiten barbarik ezekielako edota euren abotsa iñok ez ebalako entzuten.

Orra or guzti onein aide, Jesukristo Berak egingo eban Iez, gure On Klaudio'k arpegia emonda kementsu bere abots errazoiz beteriko indartsua erabilten eban. Augaitik, diru-nekea sarritan ezarten eutsoenak, jaramonik bez, berekautan esanda: "Gura baiok etorrikozak ni espexera sartuteko". Ez bakarrik Euskaldunen alde, Euskadi'ra torten ziran ta bertan egozan atzeritarren aide erabilten eban bere abots zaratatsua ta bere arpegia agertu be, bere kristiñau maitasunak ez eukan mugarik eta.

LETONAK